Hirukideren aurkezpena HONDARRIBIAN

Asteartea, otsailak 20

Hirukidek Hondarribian familia ugariei dei egiten die, elkartearen lanaren berri emateko, dituen laguntza eta deskontuak aurkezteko eta haien beharrak ezagutzeko

Otsailaren 20an, asteartea, Hirukide Euskadiko Familia Ugarien Federazioak aurkezpen bat egingo die Hondarribia eta inguruko udalerrietako familia ugariei. Hitzordua **18:00etan** izango da, Zuloaga Etxean. Baina aurkezpenera joaterik ez duten guztiei edo arreta zuzena jaso nahi dutenak arreta emango zaie, **09:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30etara**, leku berean.

Formulario hau betez gero, hitzordua hartu ahal izango duzue eta lehentasuna izango duzue arreta jasotzeko orduan. Ez da beharrezkoa aurretiko hitzordua hartzea, hurbiltzen zareten familia guztiei emango dizuguelako arreta, baina aurretiko hitzordua itxaroten ez egoteko balioko du.

Aurkezpenean eta gainerako jardunaldian egongo den arreta-puntuan, erakundearen zerbitzu eta jardueren berri eman, familia ugarientzat Euskadin dauden eskubide, laguntza eta hobari publikoen informazio zehatza eskaini eta familiek dituzten zalantza, iradokizun eta erreklamazioei erantzungo zaie.

Gai nagusiak:

- Familia ugaria izateagatik dauden eskubideak.
- Laguntzei/hobariei, baimenei eta abarri buruzko zalantzak argitzea.
- Seme-alabak hazteko eta mantentzeko laguntza berriari buruzko berrikuntzak.
- Familien Lege Berriaren aurreproiektuari buruzko informazioa.
- Zein laguntza/deskontu daude Hondarribian?
- Udalerri honetako eta/edo gertuko familia ugarien egoera eta premiak.
- Federazioaren lana.
- Familien ekarpenak.

Azken urteko berritasunak familia ugarientzat

Aurkezpen ekitaldian, azken hilabeteotan eta urteetan kolektibo honi zuzenduta izan diren berritasunak azalduko dira, familia ugari askok ez baitituzte ezagutzen. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira:

Argiaren Bonu Soziala eta termikoa

Bonu Soziala elektrikoa **2024ko ekainaren 30era arte** luzatu da, %25etik %65ra.

Seme-alabak hazteko eta mantentzeko laguntza berriak.

Kide ugariko familia izaeraren hedapena

2015ean indarrean sartu zen kide ugariko familia izaeraren legezko hedapena, eta, beraz, familiek titulu hori izaten jarraituko dute seme edo alaba gazteenak legeak ezarritako adina bete arte.

Hirukide, 1999tik

Hirukide elkarte apolitiko eta akonfesionala da, **Eusko Jaurlaritzak 2003. urtean Onura Publikoko Elkarte gisa aitortua**, bizitza politiko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresarialeko esparru guztietan kide ugariko familien eskubideen alde egiteko helburua duena.

Kide ugariko **8.300 familiak baino gehiagok** (43.000 bazkide inguruk) osatzen dute, eta bazkide izateko baldintza bakarrak dira Kide Ugariko Familia Titulua edukitzea edo eduki izana eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Egun, titulua indarrean duten familien % 25 baino gehiago Hirukideren baitan daude.

Aurten 25. Urteaurrena ospatuko du eta ekitaldi bereziak egingo ditu urtean zehar.

HIRUKIDEREN AURKEZPENA HONDARRIBIAN
- Data: otsailaren 20, asteartea.
- Ordua: 18:00etan aurkezpena eta 09:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30etara informazio punta.
- Lekua: Zuloaga Etxea (Nagusi Kalea, 8)

Informazio gehiago:
hirukide@hirukide.com
945 25 36 02 / 688 72 89 31